



BARREN  
TOKIKOM



**Hasi gara!**



Innovation  
that excites



APROBETXATU  
WLTP ARAUDI BERRIA ETA  
LORTU **NISSAN X-TRAIL** BAT  
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!  
**GAURSAN BAKARRIK.**

**GAURSA**

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO<sub>2</sub> isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.



MAALAKO  
PARKEAN

## Hasi gara! Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera goaz!

Esan zure ingurukoei izena eman duzula.  
Jarri txapa agerian.

*Ahobizi* bazara, egin euskaraz ulertzen duten guztiei.  
*Belarriprest* bazara, esan euskaraz dakitenei zuri euskaraz egiteko.

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza.  
Baliteke dena ez irtetea zuk nahi duzun moduan.  
Baina ez etsi. Eutsi.

Ekitea da garrantzitsuena. Egitea.  
Eta egiten dugunarekin eroso eta gustura sentitzea.

ELGOIBAR			
1.547 lagunek eman dute izena			
Emakumeak: 974 (% 63)		Gizonak: 573 (% 37)	
16-30 urte	289	Ahobizi: 229	Belarriprest: 60
31-50 urte	756	Ahobizi: 552	Belarriprest: 204
51etik gora	502	Ahobizi: 290	Belarriprest: 212

MENDARO			
310 lagunek eman dute izena			
Emakumeak: 200 (%65)		Gizonak: 110 (%35)	
16-30 urte	54	Ahobizi: 48	Belarriprest: 6
31-50 urte	178	Ahobizi: 136	Belarriprest: 42
51etik gora	78	Ahobizi: 59	Belarriprest: 19

## HARRI &amp; IIRI

Skate parkea



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legeburuaren ArgitalaritzaKalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
UDALA  
KULTURAREN  
BERTSULAK

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Hiart Compañon Aldalur naiz, Elgoi-barrera etorritako debarra. Pasatu da denbora nire mezua sare sozialetan eta beste komunikabide batzuetan zabaldu zenetik, eta, eskerrak emateko ordua iritsi da.

Batetik, gure familiari; gau, egun eta uneoro, maitasun osoz babesteagatik. Bestetik, nire kuadrillari, lankideei eta lagunei egunero bidalitako mezu, dei, bideo eta abarrek transmititutako indar eta maitasunarengatik.

Baita ere, Elgoibar, Mendaro, Deba, Eibar eta beste hainbat herritako jendeari, erakutsi duen enpatia, maitasun eta errespetuagatik; eta noski, jende horrek guztiak sorturiko zurrunbiloagatik.

Eta, nola ez, gure lehengusina Miren Otal Astigarragari, gure mezua

lau haizeetara zabaltzeagatik.

Azkenik, Donostiako ospitaleko hematologia saileko lantaldeari: mediku, erizain, erizain-laguntzaile eta gainonerako guzti, euren gandik jasotako tratu goxo eta bereziarengatik.

### Hiart Compañon Aldaur

### ► MILA ESKER

Eskerrak eman nahi ditut joan zen astean galdutako belarritakoa berreskuratzen lagundu didatenei. Batetik, Itziarri, berak aurkitu zuelako, eta bestetik, BARREN aldizkariari, nire oharra bertan irakurri zuelako.

M.A.G.

### ► ETA, GAINERA, ERRIETA!

Ez da taktika txarra, ez, batzuen. Zelako auzo lotsa igandekoa! Zer pen-

tsatuko dute katalanek? Eta espainiarrek? Honela gaizki goaz (zoazte, hobeto esanda). Zer edo zer aldatu beharra dugu (duzue, hobeto esanda). Ez, ez, ez dugu horrelako zibilizaziorik nahi, inola ez. Gu ez gaude prest horrelako abenturetan parte hartzeko. Gu ohituta gaude gauzak ondo egiten, bestela..., hobeto ez egin. Orain arte ondo konpondu gara, lasai asko bizi izan gara, eta hemendik aurrera, ahal dela, lehengo bideari eutsiko diogu. Zuek ikusi. Zertarako konplikatu bizi. Errealitateari eutsi behar; emaitzak txarrak izan dira, oso, eta autokritika egin behar dugu (duzue, hobeto esanda). Zuek ikusi. Gainera, hori Gure Esku (ez) Dago, eta gure esku (ez) dagoena...

Juan Luis Mugertza

## Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Aurreko bost urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan.



"Villamayor de Markina Elgoibar deitua" liburua



Ajedreza



Biserak eta motxilak



Teniseko pilotak



Errigorako otarrak



Ardo botilak



Bitxiak



Boligrafoak



Aterkiak



Mugikor euskarria



Laminak



Bufanda, kamiseta eta sudadera



Euskara batuaren eskuliburua



Telazko estutxea



Belar-dendako produktuak




Eskuz margotutako poltsa eta estutxeak



Sukalderako trapuak



Eskuz egindako etxerako oinetakoak



Bonoak

... eta opari gehiago!



Harremanetarako:

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) edo 943 741 626

## Ibilgailuentzat itxita egon da erdigunea Mugikortasun Astean



Mugikortasun Iraunkorraren Astea izendatu zuen Elgoibarko Udalak iragan den hau, autoak gutxitu eta kaleak oinezkoentzako egiteko astea, eta horretarako, hainbat ekintza antolatu ditu. Hasteko, motordun ibilgailuentzako itxita egon da erdigune historikoa aste osoan. Erabakia ez da herritar guztien gustukua izan, jakina, eta eman du zeresanik, baina helburua bete da. Era berean, bestelako ekintzak ere antolatu ditu Udalak. Astelehen iluntzean, esate baterako, Bambolea taldeak girotu zituen herriko kaleak eta asteazken arratsaldean, argidun aterkiz bete zen erdigunea. Kalebarrenen, berriz, berdegune bat egon da jarrita aste osoan, autoei lagatzen zaien gune publikoaz gogoeta egiteko.

## Abenduaren 15erako antolatutako mobilizazioetan parte hartzera deitu dute pentsiodunek



Batzarra egin zuten astelehenean jubilatuz eta pentsiodunek Herriko Antzokian. Pentsioen inguruko datuak aztertu zituzten eta Elgoibarren egiten diren mobilizazioei eustea adostu. Era berean, abenduaren 15erako deituta dauden mobilizazioetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak. Batzar ostean, elkarretaratzea egin zuten Maalan.

## Eibar-Maltzaga bidegorriaren proiektua onartu dute

Martitzenean onartu zuen Diputatuen Kontseiluek Eibar-Maltzaga bidegorriaren proiektua, eta aurki aterako dituzte lanak lehiaketarako. Boletinean argitaratu ondoren, hilabeteko epea egongo da eskaintzak aurkezteko eta obrak, ondo bidean, udaberrian hasiko dituzte.

## Sebas Etxaniz presoaren abokatuaren hitzaldia hilaren 27an

Sebas Etxaniz presoaren egoera salatzeko Karaktera mendi martxa antolatu du Elgoibarko Sarek domekarako. Oinez joatekoak direnak 10:00etan irtengo dira plazatik, eta goian, argazkia aterako dute, 12:00etan. Saldia eta txorizoa ere banatuko dituzte. Hilaren 27an, berriz, hitzaldia eskainiko du Onintza Ostolaza abokatuak Kultur Etxean, 19:00etan, eta gaur zortzi, elkarretaratzeak egingo dira Elgoibarren eta Soraluzen, *Sebas etxera* lelopean. Elgoibarko Kalegoen plazan izango da, 19:30ean.

## Herri batzarra, presoaren aldeko Olentzeroren kalejira antolatuzeko

Presoaren aldeko Olentzero antolatuzeko asmoa du Elgoibarko Sarek abenduaren 24rako, eta hori antolatuzeko batzarrera deitu du ostiralerako. Bileran, esan bezala, azaroaren 30ean izango da, Kimetz elkarrean, 17:30ean.

## Eibarko Ospitalea bisitatzeko aukera azaroaren 27an

Debabarreneko ESiko zuzendaritzak Eibarko Ospitalea ezagutzeko gonbitea egin die eskualdeko herritar guztiei. Azaroaren 27an da azken eguna, eta bi txandatan egingo dira bisitak: 16:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 18:00etara. Bisitak era egokian antolatu ahal izateko, aurrez izena emateko eskatu dute. *BisitakEibar.OSIDEBABARRENA@osakidetza.eus* helbidera idatzi behar da horretarako.

## Debarreneko industria-sektorea sustatzeko marka sortu dute



**B**asque Precision Technology District marka sortu dute, Debarreneko industria-sektorea sustatzeko eta nazioarteko merkatuan eskualdearen gaitasun lehiakorren posizionamendua laguntzeko. Eskualdeko zortzi udalek sustatu duten hausnarketa prozesu baten emaitza izan da marka hau, baina hausnarketa horretan hainbat eragile publiko eta pribatuk parte hartu dute: IK4-Ideko eta IK3-Teknikerrek, Lanbide Heziketako sei zentrok (Armeria Eskola, IMH, Meka, Mutrikuko Institutua, Uni Eibar-Ermua eta Kardala Akualtura Eskola), ETE-en berrikuntzarako eta transferentzia teknologikorako zentroak (Asmaola) eta EHUren bi egoitzak (Eibarko Ingeniaritza Tekniko Industrialaren Unibertsitate Eskola eta IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Publikoa). Juan Angel Balbas Debegesako zuzendari nagusiak aurkezpenean esan zuen hausnarketa prozesuan parte hartu duten guztiak ikuspuntu berbera izan dutela abiapuntu: "Eskualdeak etorkizuna izango badu, industria-bokazioa indartzetik eta Euskadin eratzen ari diren garapen-gune ekonomiko eta sozialekin lotzetik etorriko da".

## Boluntarioak behar dira janari bilketa kanpainarako

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Elgoibarren egingo duen janari bilketa kanpainan parte hartzeri animatu dituzte herritarrak Elgoibarko Udalak eta Gurutze Gorriak, eta era berean, boluntarioak ere eskatu dituzte kanpainarako. Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean egingo da janari bilketa kanpaina eta honako hau izango da boluntarioen egitekoa: txaleko bereizgarriak jantzi eta merkataritza-gunean sartzen direnei bonu bat eta poltsa bana ematea; azken batean, herritarrak kanpainan parte hartzeri animatzea. Kanpainan adingabeek ere parte hartu dezakete, beti ere pertsona heldu baten ardurapean. Eta boluntario izan nahi duten denek, ume zein nagusiek, izena eman beharko dute aurrez [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus) helbidera idatzita edo 943 741 050 telefono zenbakira deituta. Izena emandako lagunekin txandak antolatuko dituzte gero. Bai azaroaren 30ean eta baita abenduaren 1ean ere, 9:00etatik 21:30era arteko ordutegia beteko dute boluntarioek, txandaka.



## EGUBERRIETAKO APAINGARRIEN TAILERRA FAMILIAN

### HH4-LH3 bitarteko ume eta familientzat

Atxutxiamaikako lokalean (Merkatu Plazako 2.solairuan)  
Abenduak 1, zapatua : 10:00-13:00etara.

Izen ematea: azaroaren 21etik 28ra.  
Elgoibarko Izarraren bulegoan edo  
[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean.  
Prezioa: 6€ (5€ bazkideentzat)








## ▶ JON ZALDUA MUSIKARIA

Danbor, bateria, atabal... perkusio instrumentuekin ezagutzen du elgoibartar batek baino gehiagok Jon Zaldúa (Elgoibar, 1984) Udal Musika Bandan, Udal Txistulari Bandan, Mauxitxa txarangan zein heavy taldeetan jardundakoa baita. Gaur egun, musika irakasle lanetan dihardu Lazkaoko musika eskolan eta Donostiako Orfeoian tenore moduan abesten du. Bere musika ikasketei eta musika arloan egindako jardun ezberdinei buruz aritu gara, batik bat azken aldian gehien bizi duen orfeoari buruz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

# “Entzule gazteak falta ditu orfeoiak”

### ◆ Jon Zaldúa eta musika biak bat. Non-dik datorkizu musikarako grina?

Etetik ez behintzat. Gurean ni izan naiz bizimodua musikatik bideratu dudana lehen. Ikastolan hasi nintzen, eta gero, musika eskolan egin nituen prestakuntza mailatik armoniara artekoak. Asko hasi ginen, baina gerora askok utzi egiten zuten. Zalantza dut nirekin hasitako norbaitek eusten ote dion musikarekiko zale-tasun hari.

### ◆ Nola aukeratu zenuen instrumentua?

Perkusioa aukeratu nuen. Ez dakit zergatik, baina badirudi umetan denoi gustatzen zaigula perkusioa. Orain irakasle naiz, eta konturatzen naiz bateria eta gi-

tarra elektrikoa ikasi nahi duten ume pila bat daudela. Elgoibarren, gitarra ere ikasi nuen pixka bat.

### ◆ Abesbatzan ere Elgoibarren hasi zinen, ezta?

Itxaropena abesbatzan sartu nintzen. Gazteena nintzen; gainontzeko asko aitona-amonak ziren. Soprano gisa aritzen nintzen emakumeekin. Orduan piztu zitzaidan abesteko gogoia.

### ◆ Elgoibarren hasi, baina gero beste hainbat tokitan egin dituzu musika ikasketak. Nola joan da zure ibilbidea?

Batxillegoa bukatu eta Errenteriarra joan nintzen perkusioa maila ertaina ikas-tera. Gero, Musikenen, goi mailako lizen-

tziatura egin nuen pedagogian, eta piano eta kantu eskolak ere jaso nituen. Ordu-rako argi neukan musikaren bidetik egin nahi nituela ikasketak. Beste ikasketetan ez naiz oso ondo ibili izan; musikan, aldiz, ez zitzaidan kostatzen buruz ikastea.

Musikenen hirugarren maila egiten ari nintzela, beka bat lortu nuen eta Hensinkira joan nintzen ikasturte osorako, Europar dagoen akademiarik potenteenetariko batera. Esperientzia bikaina izan zen. Asko ikasi nuen eta hango instalazioak, orkestrak, ikasleei lan egiteko ematen zaizkien aukerak... ere ikusi nituen, ordainduta gainera. Orkestran jotzen aritu nintzen, eta baita nazioarteko





ikastetxe batean umeekin lanean ere. Aukera ona izan zen ingelesa praktikatzeko eta umeekin aritzeko.

♦ **Soinu teknikari ikasketak ere egin zituen.**

Bai, gustatzen zaizkit musika nahasteko mahaiak eta mundu hori. Zailtasun handia nuenez, ikasketak ere egin nituen eta nire gauzatxo batzuk ere egin nituen gero. ETBn egin nuen lan soinu teknikari gisa *Vaya Semanita*, *Goenkalen*, *Esta es mi gente*...

Soinu teknikari modura ikuskizun enpresa batean ere aritu naiz: auditoriumetan, herriko jaietan... Niri antzoki barruko lana gustatzen zait gehien, ordutegiagatik, dena garbi eta txukun egoten delako, eta soinu maila oso ona izaten delako. Musikari askorekin aritu naiz, esaterako Donostiako Jazzaldian, eta norbera musikari izanda, polita da lanean musikari onekin aritzea. Musikari on batekin badakizoinu teknikariarekin nola lan egin.

Orain Tio Teronen Semeak taldearekin dantza ikuskizun batean ari naiz, musikari zein teknikari.

♦ **Ikasten urte askoan jardun zenuen eta irakasle ere beste askoan ari zara.**

22 urterekin, oraindik titulua eskuratu gabe, ordezkapenak egiten hasi nintzen eta ordutik hainbat herritako musika eskolatan ibili naiz. Urte gehien Oñatikoan egin ditut, baina egon naiz Soraluzen, Donostian, eta orain, Lazkaon. Abesbatza, 5 urteko umeentzako instrumentu tailerra, eta kantu eta perkusio eskolak ematen ditut.

♦ **Askotan esan da European musika irakaskuntzaren plangintzak hemengoak baino hobek direla. Egia al da?**

Nire ustez, hala da. Beste herrialdeetan badakite dirua nola eta zertan erabili. Helsinkin, esaterako, zuzendaritza ikasten ari zen ikasle bati eskolako orkestra zuzentzeko aukera eman zioten proiektu gisa, ordainduta. Eraikinetan ere ikusten da; auditoriuma kontserbatorio aldamenean dago. Orkestra profesionala musika eskolaren ondoan ari da lanean, eta kolaborazioak behar direnean, ikasleengana jotzen dute. Donostian, Euskadiko Orkes-

tra Miramonen dago eta Musikene eskola Antiguana, eta entseatzera joateko ez dituzte gauzak errazten.

♦ **Horregatik jotzen du gazte askok musika ikastera kanpora?**

Nik uste dut baietz. Kanpoan eskaintzen dituzten erraztasun eta baldintza hobeez eta curriculum egiteko joaten direla. Urtebete kanpoan egon eta maila altuko irakasle batekin jarduteak titulu ofizialik ematen ez badizu ere, curriculumerako garrantzitsua da.

## “Entzule modura operara joan eta arraro sentitu izan naiz”

♦ **Donostiako Orfeoian tenore gisa abesten duzu. Nola sartu zinen?**

Musikenen perkusioa alboratu behar izan nuen, orfeoian pianoa eta ahotsa eskatzen dituztelako. Uda batez piano eskola partikularrak hartu behar izan nituen sarrera probarako gutxieneko maila behar baita. Han, kantuko irakasleak esan zidan animatzeko; duela bederatzi urte sartu nintzen. Orfeoian oraindik bada jendea musika irakurtzea kostatzen zaiona. Entonazio eta ahots baldintzetan gutxieneko batzuk eskatzen dira, baina ez musika ikasketarik. Orfeoian txiki-txikitatik lantzen hasten dira, eta harrobia indartsuagoa da. 70 urtetik gorako nahikoa jende dago, baina horiekin gero eta gutxiago kontatzen da, gazteak fuerte datozelako. Gizonetakoak abesbatza batera erakartzen gehiago kostatzen da emakumeak baino, beraz, hutsunea dago, adibidez tenoreetan, 20tik 30 urtera artekoetan.

♦ **Zein musika abesten duzue?**

Gehien bat sinfonikoa; musika folklorikoa ere bai pixka bat eta modernoa ere bai tarteka, baina orokorrean obra sinfoniko koralak dira gehienbat, orkestrekin batera abesten direnak.

♦ **Entzuleak nolakoak dira?**

Denetik, baina hutsunea dago gazte-

etan. Ni entzule moduan Operara joan eta arraro sentitu izan naiz. Andregizon nagusi asko joaten da dotore jantzita, “tontokeria” asko dago. Izaten da azken uneko sarrera merkeagorik gazteentzako, baina ez beste leku batzuetan beste. Finlandian, auditoriuma ia bete arte ez zen kontzertua hasten. Gelditzen ziren sarrerak merke jartzen zituzten aretoa betetzeko, hiru euroan-edo. Hemen Kursaalera joan eta 1.400 eserlekutatik 300 hutsik izaten dira. Sarrera merkeenak 40 eurotan daude. Ez da zinemara joatea bezala, eta zinema ere ez dago merke.

♦ **Gazteek, beharbada, ez dute hain gogoko musika mota hori.**

Batzuei pila bat kostatzen zaie musika klasikoa entzutea eta zer esanik ez interpretatzea. Gaur egungo panorama musikala hori da, eta horren kontra ezin dugu askorik egin. Askok regetoia entzuten dute, eta beraientzat hori bakarrik dago. Nik musika eskolak ematen ditut DBHn, Donostiako Ikastola batean, eta beren gustuko musika talde bati buruzko lan bat egiteko eskatuz gero, gehiengoak regetoia aukeratzen du. Guk, gutxienez, Hertzainak-eta entzuten genituen, baina hauek ez dakite litoitzen *Lau teilatu* zer den ere.

♦ **Abesbatzak ikusten dira ekitaldietan abesten. Zuek Orfeoia berezko emanaldietaz gain, bestelako ikuskizun askotan hartzen al duzue parte?**

Horrelako gauzak pribatuak izaten dira gehienetan, eta egiten ditugu. Orfeoian 120 lagun gaude eta batzuk aukeratu eta ekitaldirako zerbait berezia prestatzen da. Ezkontzetarako ere deitu izan digute eta 6-7 lagun joan izan gara.

Orfeoia emanaldien zenbaki zehatz bat ematea zaila da, baina batez beste hilabetean pare bat izaten dira. Gerta daiteke Madrilera bidaiara bat egitea eta han bi edo hiru emanaldi eskaintzea. European nahikoa saio egiten ditugu. Aurten, esaterako, Rotterdamen, Parisen eta Bruselan ibili gara. Iaz, berriz, Milanen eta Londresen, BBC Proms jaialdian, Royal Albert Hallen. Guretzat sekulakoa izaten da munduko orkestrarik eta zuzen-



daririk onekin abestea. Gurea abesbatza amateur bat da, profesional baten erara funtzionatzen duena. Profesionalek sartzen dituzten adina ordu sartzen ditugu, baina ez dugu ordainsari argirik. Orfeoiko kide guztiontzat zaletasuna da. Galdetu izan digute zein ezberdintasun dagoen profesionalen eta amateurren artean, eta zuzendariak esaten digute gure bategitea eta batek besteari entzuteko modua sentikortasun berezi batekin egitea lortzen dugula

guk. Abesbatza profesionaletan bakoitza bakarkako ahots bat izaten da, eta beren artean lehiakortasun handia egoten da. Bakarlari asko entzuten dira, eta hori zuzendari askori ez zaie gustatzen. Gure zuzendariak esaten digu gure majja elkar-hartzean dagoela.

♦ **Euskal Herriko Gazte Orkestran perkusiolaria bezala ibilitakoa zara.**

Bai, han lau urte egin nituen. Adinez pasatutakoan utzi egin behar izaten da. Sekulako aukera izan zen, eta nik orain ere esaten diet ondo ikusten ditudan ikasleei sarrera frogak egiteko. Hala ere, frogak nahiko zorrotzak dira. Obra sinfoniko potenteak dira, eta partiturak ondo irakurtzen jakin behar da. Baina ate asko irekitzen ditu gero.

♦ **Orain utzia duzu perkusioa?**

Ez, jarraitzen dut jotzen. Irakasle iri naiz eta batzuetan deitzen didate jotzeko. Esaterako, Victoria Eugenia zartzuelaren baterako, orkestra txikiarekin jotzeko, bandaren batean...

♦ **Zein iritzi duzu gaur egun egiten diren musika estiloez: rap-a, musika elektronikoa, regetoia...?**

Niri ez zaizkit batere gustatzen. Jueragan irteten naizenean ulertzen dut erritmoa daukan zerbaite jartzea; badakit ez ditudala Beethoven edo Mozart entzungo. Ipintzen dituzten kantuek dantzara bultzatzen dute jendea, baina niri kosta egiten zait hain musika komertziala entzutea. Musika klasikoa beti izango da kla-



*“Batzutan lokal batera joan eta rock edo heavy-a jotzeko falta sumatzen dut”*

siko, ez dauka zentzurik orain musika klasikoa egiteak, bere garaikoa da. Baina bada hutsune bat: esaterako, jendeak ez ditu ezagutzen filmeetako soinu-banda originalak eta orkestrek sortutako musika ona dago hor, konpositore bikainek egindakoak.

Komertziala ez, baina gainontzean mota askotako musika entzuten dut Rock&Rolla esaterako. Garai batean, 16-18 urte bitartean, heavy metala jotzen nuen Hellgoibar taldean eta Invention taldea ere izan genuen. Gogoan daukat jaietan plazan jo gurela, Su ta Garren aurretik. Hori musika da, eta musika sortu dago hor.

♦ **Zuk gaur egun sortzen duzu?**

Bai, gauza txikiak sortzen ditut, etxean. Musikalen musika originala pila bat gustatzen zait. Esaterako, *El Rey Leon* en konpositorea hartu, bere partiturak aztertutako eta gero idaztea. Baina horiek etxean eta etxe-koentzat gelditzen dira. Guk sortu ez arren, orfeoiarekin gauza pila bat grabatzen ditugu. Soinu banda asko. laz, esaterako, *Un monstruo viene a verme* filmekoa grabatu genuen eta Goya bat irabazi. Ilusio handia egin

zizun film hartako parte izateak. Bayonaren *El orfanato* eta *Lo imposible* filmeetakoak ere egin ditugu. Fernando Velazquez da konpositorea eta Euskadiko orkestrak musika jartzen duenez, gure ahotsa aukatzen du. 2019an aterako den Elkanoaren animaziozko filmaren ahotsa ere grabatu dugu.

♦ **Elgoibartik joan arren, jarraitzen duzu herriko musika?**

Elgoibarren nire alea utzi dut. Hainbat taldetan ibili naiz, Udal Musika Bandan ere bai, txistulariekin eta Mauxitxa txaranga ere bai. Gero eta gutxiago etortzen naiz, baina beti izango ditut gogoan eta batzutan falta ere sumatzen dut. Adibidez, lokal batera joatea rock edo heavya jotzera. Gainera gero eta gauza gehiago egiten dira musika arloan. Musika Bandan badira aldaketak -zuzendaria bera ere aldatu dute-, txaranga jende gazte pila bat sartu da, musika eskolan ere aldatuta asko egon dira...

♦ **Musikatik bizi daiteke?**

Bizi daiteke, etxe-koen babesarekin izanez gero eta norbera lanerako gogoz egonez gero. Irakasle gehiago dihardut interprete baino, izan ere, oso zaila da musika jottetik bakarrik bizitzea. Batean eta besteetan musika jotzen dugu, baina musika eskoletan aritzen gara aldi berean, ezinbestekoa zaigulako bizibidea ateratzeko. Bestela oso zaila da. Musika banda profesional batean plaza atera behar da horitatik bizi ahal izateko, eta zaila da.



## ▶ AMELIA TIGANUS

EKINTZAILE FEMINISTA ETA  
FEMINICIDIO.NET-EKO AKTIBISTA

Errumaniako langile klaseko familia batean jaio zen Amelia Tiganus (Galati, Errumania, 1984). Bi ahizpetan zaharrena da, ikasle ona umetan, irakasle edo sendagile izatea amesten zuena. 13 urterekin, baina, bortxatu egin zuten bost mutilek eskolatik etxerako bidean. Ez zen bortxaketa salatzerantz ausartu hala ere, bazekielako inork ez sinistea edo errua berari egotea bortxaketa bera baino jasangaitzagoa egingo zitzaioela eta ezagutzen zituelako, jakina, halako kasuak ere. Talde-bortxaketa hura gerora sufritu beharko zuen kalbarioaren hasiera baino ez zen izan, ordea. "Bortxaketak sistematikoak bihurtu ziren". Eskolako atean zain izaten zituen mutilak, jazarri egiten zuten, eta 17 urte pasatxo zituela, saldu egin zuten, merkantzia nola. Proxeneta espainiar batek erosi zuen 300 euroan, eta 3.000 euroko zorra egin zuen berak. Ondorengo bost urteetan 40 prostituzio etxetan aritu zen lanean, beste ezertarako balio ez zuela sinetsita. Duela 11 urte lortu zuen sistema horretatik irtetea, baina duela lau urte jarri zion izena bizitako guztiari. Gaur, herririk herri dabil, sexu-exploatazioaren eta gizakien salerosketaren negozioa salatzen eta jendartearen kontzientzia esnarazten.

- AINARA ARGOITIA -

# "Prostituzio etxeak indarkeria matxistaren gotorleku dira, Gobernuak baimendutakoak"

### ♦ Zein momentutan utzi zenion mediku edo irakasle izateko nahiari, prostituzioan aritu nahi zenuela erabakitzeke?

Urteak pasatu ditut galdera horrentzako erantzun bila, emakume jaio nintzelako ni, eta ez puta, sistema patriarkal honek hala sinistarazi badit ere. Talde-bortxaketa batekin hasi zen dena. 13 urte nituen, eta markatu egin ninduen gertaera hark. Izua sentitu nuen, izua jasandakoa kontatzeko eta izu handiagoa kontatuz gero gerta zekidakeenari aurre egiteko. Okerrena ez zelako bortxaketa izan, ingurukoen erreakzioa baizik. Baztertu egin ninduten, seinatu egin ninduten eta puta etiketa jarri. 14 urterekin, ikasketak laga nituen. Ahalegindu nintzen aurrera egiten, baina besteen begietan puta nintzen, gure hau baino are patriarkalagoa den gizarte batean. Zaborra nintzen, eta babesgabetasun erabateko hartan, abandonu hartan, oso erraza egin zitzaien sinistaraztea puta izatea nuela bizitza honetan egin nezakeen onena. Esaten zidaten emakume azkarra izanda, bi urtean bizimodua konponduko nuela. Sinistu egin nuen, eta baietza eman nien. Jakina, informazio asko ezkutatu zidaten. Ulertuzat ematen dugu sexua dela, baina zein sexu mota? Inork ez digu kontatzen zer den beren gizonkeriaren gala egiteko ordaintzen duten putazaleen zerbitzura

egotea. Merkantzia gisa saldu ninduten proxeneta bati, hark putazaleei eskaintzeko, haiek nahi zutena egin zezaten nirekin. Eta Alacanten, nire lehenengo prostituzio etxean, jabetu nintzen etxe hura nire adin bereko neskez beteta zegoela eta denek nire patroiz bera jarraitu zutela hara iristeko, puta nortasuna fabrikatzeko prozesu bera.

### ♦ Azalduguzu prozesu hori.

Pobrezia ekonomikoa da neska asko prostituziora eramaten dituen, baina pobrezia baino faktore garrantzitsuagoa da sexu indarkeriaren faktorea. Prostituzioan dabilzan emakume gehienek sexu indarkeria jasan dute aurrez, trauma ugari pilatu dituzte, hutsaren hurrengo sentitzen dira, eta sistema patriarkal honen amuan jausten dira, sistema bera oso ondo prestatuta dagoelako babesgabetasun egoeran dauden andreak harrapatzeko.

### ♦ Baietza eman zenuen, baina ahultasun egoeran dagoenak baimenik eman al dezake? Balio al du haren baietzak?

Eman dezake, neuk ere eman nuelako, baina baimen hori ezin da aintzat hartu, biziatua delako. Palermoko Tratatuak argi dio ezin direla mehatxua, indarra edo indarkeriaren beste formak (bahiketa, iruzurra, engainua, botere gehiegikeria edo ahultasun egoeran daudenei

ordaina edo onura batzuk eskaintzea) baliatu, pertsonak garraiatzeko edo hartzeko. Bikotekidearen tratu txarrak jasan dituen emakumeari ere sarri hartu izan zaio kargu gizonaren ondotik urrundu ez izanagatik, baina zorionez, hasi gara ulertzen urruntzeko aukerarik ez dutelako ez direla aldentzen; ari gara ulertzen ezin dugula erantzukizun guztia emakume horien bizkar laga, gizarte osoaren egitekoa delako hori aldatzea. Prostituzioa abolitzea ere denon ardurua da. Prostituzioak emakume guztioi egiten digu min, eta ez bakarrik putei. Gainera, kontziente izan behar gara arazo larria dugula sexu indarkeriarekin. Mutil gazteak gero eta gazteago hasten dira pornografia gogorra kontsumitzen, eta aisialdian, prostituzio etxeetara joaten dira. Emakumeak erabili eta botatzeko objektuak dira haien zatik. Indarkeria horretan entrenatzen dira. Eskema neoliberal, kapitalista, matxista eta arrazista honetan, gizonen desioak eskubide bihurtzen dira, eta gure desioak, ikusezin.

♦ **Gazte askok sexuarekin duten lehen harremana pornografiaren bidez da, eta gizonen whatsapp talde askotan erabat naturalizatuta dago pornografia hori. Zer suposatzen du horrek?**

Pornografiaren bidez indarkeria naturalizatzen ari gara, eta argi esan behar dugu pornografiak ez duela zerikusirik sexuarekin, gozamenarekin eta sentitzearekin. Pornografia ezin da gaur dagoen bezain eskura egon, eta eskoletan garrantzi handiagoa eman behar diogu afektibitateari eta sexu hezkuntzari, belaunaldi berriek uler dezaten emakumeak ez garela objektu bat.

♦ **Duela 11 urte laga zenuen prostituzioa, baina urteak behar izan dituzu biktima izan zarela jabetzeko. Hortik ondoriozta dezakegu emakume asko egongo direla oraindik horretaz jabetu ez direnak. Ala?**

Pertsonen salerosketaren biktima izan diren emakume gehienak ez dute biktimatza euren burua, besteak beste komunikabideetan zabaldutako biktima-eredua beste bat delako, guztiz estereotipatuak: gela itxi batean katera lotutako emakumea da biktima; biktima perfektua. Gutako gehienak lotzen gaituzten kateak, baina, ikusezina dira, putazaleek egoera onean nahi dutelako merkantzia -gu-. Eta produktibitateak bakarrik kezkatzen dituzenez, proxenetek oso ondo zaintzen dute azala, merkantzia horren biltzarria. Prostitutoi, eta oro har indarkeria matxistaren biktima diren emakume guztiei, izugarri kostatzen zaie biktima direla onartzea. Terrorismoaren biktima izan den baten testigantza entzuten dugunean berehala identifikatzen dugu biktima. Indarkeria matxista kasuetan ez da hala, baina. Emakumearen hitza beti jartzen da zalantzan. Horregatik aldarrikatzen dut nik nire biktima izaera, biktimarik gabe ez dagoelako biktimariarik eta biktimariarik gabe Estatuak ez delako behartuta sentitzen biktima horien aitortzarako eta erreparazioarako mekanismoak abiaraztera. Biktima hitzari balioa ere eman behar diogu. Emakumeek ez dute biktima izan nahi, ez direlako inutil sentitu nahi, baina nik garbi daukat ez da-

*“Prostituta gehienek sexu indarkeria jasan dute aurrez, traumak pilatu dituzte, eta hutsaren hurrengo sentitzen dira”*

goela indarkeria matxista jasan eta traba guztien gaineratik ihes egiteko adorea bildu duen emakumea baino ausartagorik.

♦ **Prostituzioa eta pertsonen salerosketa. Bereiztea komeni da, ala ez?**

Ez. Turismo sexualaren bila dabiltenentzako oportunitate bihurtzen ari da estatu espainiarra; Europako Thailandia bihurtzeko bidean da. Turismoa da diru-iturri nagusia estatuan, apenas dagoelako industriarik, eta, jakina, interes handia dago prostituzioa lanbide bihurtzeko. Eta lan hori, nola ez, herrialde pobretako emakumeei tokatuko zaie egitea gehienbat. Eta prostituzioa lanbide bihurtzeko interes handia dagoen bezala, interes handia dago prostituzioa eta pertsonen salerosketa bereizteko ere, inork gutxi onartuko duelako pertsonak salerosketa ondo dagoenik.

Baina argi laga behar dugu, pertsonen salerosketa dela prostituzio-sistema elikatzeko bide nagusia, salerosketen biktima diren %80 sexu esplotazioarako erabiltzen direlako.

♦ **Prostituzioa arautzea eskatzen dute emakume eta prostituta batzuek, hala ere. Prostituzioa libreki aukeratu dutela diotenen kontrakoa al da zure diskurtsoa?**

Ez. Nik prostituzioaren aboluzioa eskatzen dut eta iruditzen zait sarri nahita konfunditzen direla aboluzioa eta debekua, bi teoria-eredu ezberdin izan arren. Mugimendu feminista aboluzionista da berez, nahiz badauden feminista batzuk oraindik ez dutenak teoria hori barneratu. Teoria aboluzionista ez doa prostituten kontra; haien eskubideak bete daitezten egiten dugu lan. Prostituta askok uste dute erregularizazioak euren egoera hobetuko duela, baina ikusi dugu Herbehereetan, Alemanian... egoerak okerrera egin duela eta prostituzioa erregularizatzearen onuradun bakarrak proxenetak izan direla, kolpetik enpresari bihurtu direlako. Proxenetak eta gobernuak ere bai, jakina, irabazi handiak lortzen ari direlako. Gainera, prostituzioa lanbide izatea nahi dutela dioten emakumeak oso gutxi dira.

♦ **‘Hitze egin dezatela prostitutek eurek’ esango dizute.**

Bai, sarri entzuten dugu hori eta oso krudela da, indarkeria matxistaz ari garenean ez dugulako exijitzen tratu txarrak jasotzen etortzea hitz egitera, besteak beste, haietako askok bikotekidearen ondora itzuli behar dutelako gero. Guk politika publikoak eskatzen ditugu, prostituten oinarriko giza eskubideak bermatzeko. Uste dugu, esaterako, ez dela beharrezkoa gizarte segurantzian alta emanda egotea, osasun zerbitzuak jasotzeko. Prostituzioaz ari garenean, oker bat egiten dugu: prostituta jartzea erdigunean.

♦ **Nora zuzendu behar gure argia?**

Prostitutei buruz hitz egin beharrean sistema prostituzionalaz hitz egin behar dugu. Hitz egin behar dugu Estatuaz, proxenetek eta gure gizonez, larrutan hain gutxi egiten den herria izateko prostituzio etxe asko daukagulako inguruan. Jende asko dago hemen prostituzioaren bizkar aberasten ari dena. Badira Espainian herri asko prostituzioaren negoziotik bizi direnak, eta jakina,



nor joango da prostituzio etxeak itxera? Inor ez, baldin eta ez baditugu behintzat begiak zabaltzen eta prostituzioaren krudela bistaritzen; bizitzan beste aukerarik ikusi ez dutelako etsi-etsian prostituzioan amaitu duten andren sufrimendua azaleratu behar dugu eta haiekin enpatizatu; negozioa egiten ari direnen gainera zuzendu argia.

#### ♦ Zer isiltzen da guzti honetan?

Burdeletan emakumeak saldu eta erosi egiten direla, diru truke nahi bestetan penetratzen dituztela gizonak, pornografia kontsumitzera behartzen dituztela eguneko 24 orduan eta erdi biluzik eta takoieta ibiltzera. Gizonak, berriz, ilarak egiten dituztela korridoreetan, indarraren bidez eta diru truke, euren maskulinitea indartzeko. Aita-semeak eta auzoak ere elkartzen dira ilaran, baina inork ez du kontaktzen han gertatzen dena. Putazaleek isiltasuna erosten dute. Nik ez dakit ez dugun ikusten edo ez dugun ikusi nahi, garbi daukadalako prostituten lekuan jarri eta haiekin enpatizatzen duen edonor eskandalizatuko litzatekeela.

#### ♦ Sexu-desira gizonen berezko ezaugarritzat saldu izan da. Zergatik kontsumitzen dute prostituzioa gizonak?

Prostituzioa kontsumitzeak ez dauka zerikusirik sexu-desirarekin. Nomina kobratzen dutenean etortzen dira, beraz ez du loturarik sexualitatearekin. Euren boterea agertzeraz joaten dira. Begira, gizonak gertatzen ari zaiena da prostituzio etxeetan babestu beharra dutela, feminismoari esker, gizarte hau aurrerapauso handiak egiten ari delako eta kalean ari garelako poliki-poliki maskulinitate molde horiek zokoratzen. Prostituzio etxeak indarkeria matxistaren gotorlekuak dira, Gobernuak baimendutakoak. Parekidetasuna lortzeko lanean ari direla esaten digute agintariek, baina bien bitartean espazio fisikoak eskaintzen dizkiete gizonak, emakumeekin nahi duten guztia egiteko. Gizonak galdetzen badiezu, berriz, bakarren batek aitortuko dizu noizbait izan dela putetxeren batean, baina trago bat hartzen bakarrik. Tragoa hartzeraz prostituzio etxera? Tragoak beste edozein lekutan balio duenaren halako hiru balio duen lekura? Prostituzio etxeetara doaz taberna horretan beste edozein tabernatan egin ezin dezaketena egin dezaketelako. Dena den, tragoa bakarrik hartu duela dioen horri ere esan behar harko genioke ez dela errugabea, putetxera joanda negozio horri bidea ematen ari delako.

#### ♦ Putazaleak perfil jakin ba al du?

Gizonak dira, eta matxistak.

#### ♦ Nola laga zenuen prostituzioa? Zer mundu topatu zenuen kanpoan?

Bost urtez 40 prostituzio etxetan lan egin ondoren eta ikusirik agindu zidaten hura ez nuela sekula lortuko, egoerak gaina hartu zidan. Bi aste egin nituen aukerarik gabe, lanik egin gabe, eta zorra pilatzen. Eta alde egiten utzi zidaten, batetik, sinistuta zeudelako luze gabe bueltatuko nintzela berriro hara, eta bestetik, ezin nindutelako behartu eta ezta konbentzitu ere ohikoak di-

tuzten trikimailuen bidez. Eta jakina, nik laga nuen egunean bertan 18 urteko beste hiru neska zituztelako atean, sartu zain, eta ni isil-isilik nindoalako, negozioari minik egin gabe. Kanpoan, berriz, aurreiritziz betetako jendarte bat topatu nuen. Nik kontatu nahi nuen dena, baina batzuek moral kristauarekin epaitzen ninduten, eta besteek lasai egoteko esaten zidaten, ahazteko pasatutako dena, eta hori, finean, mundu hori isiltzeko beste modu bat da. Hala ere, egin nuen aurrera, topatu nuen bikotekide egonkor bat, hasi nintzen lanean eta bizitza ideala nuenean, gaixotu egin nintzen. Sekulako depresioan jausi nintzen, eta neure burua hiltzeko gogoa piztu zitzaidan. Botikekin tontotu ninduten, horixe izan zelako jaso nuen laguntza bakarra, eta nire buruaz beste egiteko gogoa ere kendu zidaten, baina bizian hilda nengoan. Konturatu nintzen sentsazio hori bera bizi izan nuela aurrez, prostituzio etxean nengoela kokaina eta alkohola erruz kontsumitzen nituenean, irtenbide bako egoera hari eusteko. Hala, botikak hartzeaz laga eta irakurtzeaz ekin nion, konpulsiboki. Feminismoa deskribatu nuen, eta salbazioa izan zen patriarkatua zer zen jakitea. Feminismoak indarra eman dit jendeaurrera irten, bizitakoak salatu eta beste hitz egiterik ez duten emakume batzuen ahotsa izateko.

#### ♦ Zeintzuk neurri hartu beharko genituzke?

Lobby proxenetaren aurrerabide guztiak trabatu beharko genituzke. Udaberriean, Open Society Foundationek egoitza zabaldu zuten Bartzelonan (prostituzioaren gune nagusia estatuan). George Soros filantropoa da horko burua eta izugarrizko dirutza ari da jartzen prostituzioa legeztertzeko. Estrategia global bati erantzuten dio honek jakina, geopolitikoki interes handia dagoelako Espainian prostituzioa legeztertzeko, prostituzioa lanbide bihurtzeko. Prostituzioa despenalizatu nahi dutela esaten dute, baina hemen, zigortua dagoen bakarra proxenetismoa eta sexu-esplotazioa da. Beraz, zer esan nahi dute horrekin? Bada, proxenetei enpresari deitzeko eta sexu-esplotazioa lan esplotaziotzat hartzeko. Kontzientzia hartu behar dugu eta agintariei exijitu biktimak identifikatzeko, babesteko eta haiei erreparazioa emateko. Era berean, sentsibilizazio kanpainak egin behar ditugu gizonak zuzenduta. Argi esan behar diogu prostituzioa kontsumitzean pertsonen salerosketa sustatzen ari direla. Eskoletan hezkuntza afektibo-sexualari buruzko programak lantzea ere urgentziazkoa da.

#### ♦ Feminismoan topatu zenuen argia. Prostituzioaren gaian behar besteko indarrez ari al gara feministok?

Gure ziliborrari begiratzen diogu sarri eta iruditzen zaigu emakume guztiak gure maila berean daudela eta exijitzen dugunak denentzako balio duela, baina gertatzen dena da lurra jotzen daudenen oinarritzko beharrak beste batzuk direla. Nik izugarri maite dut Euskal Herria eta oso eskertua nago herri honi, hemen topatu diodalako zentzua bizitzari, baina egia da Euskadiko mugimendu feministan prostituzioa gai tabua izan dela eta ez dela ezta eztabaidatu ere egin.

*“Estatuaz, eta gure gizonen hitz egin behar da, larrutan gutxi egiten den herria izateko prostituzio etxe asko dagoelako”*

# Ekintza ugari indarkeria matxista salatzeneko

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da domekan, eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Bihar, zapatua, 14 urtetik gorako emakumeentzako autodefentsa tailerra egingo dute, 9:00etatik 12:00etara Elgoibarren. Domekarako, bestalde, emakumei zuzendutako antisorgailu tailerra eta sexu praktikei buruzko eztabaida antolatu du Narrutsik taldeak. Elgoibarko Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 10:00etan. Eguerdirako, bestalde, elkarretaratzera deitu ditu Elgoibarko Udalak herritarrek. Batukada feministak aldarrikapen doinuak eskainiko ditu, eta Narrutsik talde feministak ere bat egingo du ekimenarekin. Egun berean, baina, Mendaron, azken urteotako *Women in black* ekintza egingo dute 19:00etan Herriko Enparantzan. Horrez gain, frontoia hilerri bihurtuko dute 12:00etatik 14:30era eta 16:30etik 19:30era, herritarrek dolua agertu dezaten.

- AINHOA ANDONEGI -



## ▶ PAULA IGLESIAS

'FABRICANDO MUJERES' FILMAREN ZUZENDARIA

*"Oharkabea pasatzen zaizkigun mikromatxismo egoera asko daude, eta horiek gainditu behar ditugu"*

### ◆ Zein gai lantzen du *Fabricando Mujeres* filmak?

Indarkeria matxistaren identifikazioa eta egungo egitura ekonomikoan kontsumitzen dugunaren arteko lotura aztertzen du dokumentalak. Indarkeria matxista identifikatzeko hiru alor hartu ditugu kontuan: etxea, estetika eta mugikortasuna. Alor horietako bakoitzean pertsona desberdinak elkarriketatu ditugu. Bakoitzak bere alorretik hitz egin du, baina denak ikuspuntu positibo batetik mintzatu dira, alternatiba berriak aurkitzeko giltzak emanaz. Indarkeria matxista kritikatzeko du filmak, baina tonu umoretsuan, biktimitasmoan erori gabe eta ahalduzaren bitartek. Feminismoa presente dago dokumental guztian, bere perspektiba guztietan.

### ◆ Indarkeria matxista kritikatzeko duzue, umorea erabiliz. Nola egin duzue?

Fikziozko protagonista sortu dugu, Maite (Itziar Aizpuru). 80 urteko emakume

sortzailea da, asmakizunak egiten dituen emakumeen fabrikako hondakinekin. Dokumentalean bi espazio daude: emakumeen fabrika eta Maiteren tailerra. Emakumeen fabrikaren emakumezkoen estereotipoak sortzen dira, eta Maiteren tailerrean estereotipo horiek irauli egiten dira, emakumezkoen beste modelo batzuk aurkitzeko. Nolabait esateko, beste modu batean ordezkatzeko gaituzten estereotipoak bilatzen dira Maiteren tailerrean. Kontrajarrian dauden bi espazio dira.

### ◆ Maiteren tailerra Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa kokatu duzue. Nola iritsi zineten kokaleku horretara?

Ana Serna zuzendari laguntzaileak aurkitu zuen kokaleku hau. Lokalizazio desberdinen artxibo bat geneukan eta Interneten ere ordu asko eman zituen kokaleku bila. Ikusi genuen unean bertan Maiteren tailerra kokatzeko espazio bikaina iruditu zitzaigun. Oso ondo hartu gaituzte Elgoibarren, eta eskertzekoa da.

Paula Iglesias (Santiago, Galizia, 1986) da *Fabricando Mujeres* filmaren zuzendaria. Kazetaritza ikasi zuen, eta istorioak kontatzeko sentitzen zuen beharrak eraman zuen ikus-entzunezkoen mundura. Erreflexiorako gaiak lantzea gustatzen zaio, eta azken lan honek ere horretarako bidea emango duela uste du. Makina Erremintaren Museoa grabatu dute filmaren zati bat, eta Elgoibarko herriari eskerrak emateko, azaroaren 27an estreinatuko dute filma Herriko Antzokian (19:00etan, doan).



Maite (Itziar Aizpuru) eta dokumentaleko lantaldea Makina Erremintaren Museoa.

Emakumeen fabrika, aldiz, Legutioko Conserbas Giraldo kontserbategian kokatu dugu. Emakumeen fabrika islatzeko leku zuri bat nahi genuen, neutroa, hotza, eta kontserbategia oso egokia zen horretarako. Han ere behar genituen erraztasun guztiak eman zizkiguten. Ezin naiz kexatu bi lekuetan izan dugun harrerarekin.

#### ♦ Dokumental interaktiboa ere sortu duzue. Zertan datza?

Bai, bi aldaerak egin ditugu: batetik, dokumental lineala, Elgoibarren eskainiko duguna, eta, bestetik, dokumental interaktiboa. Bigarren hau webgune bati lotuta dago, eta helburua da ikusleen kolaborazioari esker edukiak osatu eta handitzen joatea. Setem Hego Haizea elkarteak egindako *Consumimos violencia?* ikerketa dago dokumentalaren oinarrian, eta atal interaktibo horrekin proiektu hori bera ere osatzeko eta hedatzeko helburua dugu.

#### ♦ Zein mezu zabaldu nahi izan duzu dokumental honekin?

Mezu positiboa zabaldu nahi izan dut. Gustatuko litzaidake ikuslea jabetzea gauzak aldatzea posible dela, eta indarkeria matxista ezabatu ahal dugula, bai indibidualki eta baita modu kolektiboan ere. Garrantzitsua da, baina, indarkeria

matxistak identifikatzea, aurre egin ahal izateko. Indarkeria matxista bortitzena hilketak dira, eta horiek erraz identifikatzen ditu jendeak, baina oharkabean pasatzen zaizkigun mikromatxismo egoera pila bat daude, eta horiek ere gainditu egin behar ditugu.

#### ♦ Igandea azaroaren 25a da. Beharrezkoak dira horrelako egunak indarkeria matxistari aurre egiteko?

Egungo egoera oso konplikatu eta gordina dela iruditzen zait. Ez dut uste hobera egin dugunik, baina bai uste dut, egoera hau aldatzeko bide onetik doazen ekimen asko daudela martxan. Gizarte moduan, indarkeria matxista guztiak ezabatzea izan behar dugu helburu. Indarkeria bortitzenetik hasita, hau da, hilketetatik hasita, indarkeria txikieneraino. Egunero koan emakumeok indarkeria egoera txiki asko jasaten ditugu, eta ezin ditugu oharkabean pasatzen utzi.

#### ♦ Joan zen astean aurkeztu zenuten dokumentala Bilbon. Nolako harrera izan du?

Bilboko Zinebi zine jaialdian aurkeztu genuen, eta egia esanda, uste genuena baino jende gehiago etorri zen estreinaldira. Oso pozik geratu ginen ikusleen ha-

rrerarekin. Orain bira txiki bat egingo dugu filma aurkezteko. Donostian, Gasteizen eta Elgoibarren izango gara. Elgoibarko herriari eskerrak emateko modu bat iruditu zaigu aurkezpena bertan ere egingo. Aurrera begira gustatuko litzaiduke Espainiako zenbait lekutan ere proiektatzea filma. Politia izango litzateke dokumentalean parte hartu dutenen herriak bisitatzea. Gustatuko litzaidake Madril eta Bartzelonara eramatea behintzat.

#### ♦ Nola iritsi zinen zinema mundura?

Kazetaritza ikasketak egin nituen. Oso argi neukan istorioak kontatu nahi nituela, informatzea nahi nuen, ikuspuntu pertsonalizatu eta espezializatu batetik. Horretarako modurik onena dokumentala iruditzen zitzaidan. Informazioa zabal emateko aukera ematen du dokumentalak, eta sormenak ere badauka lekua. Zinearen mundua oso zabala da, baina niri dokumentala da betidanik gehien gustatu izan zaidana. Orain Al Borde films ekoiztetxean dihardut lanean, eta erreflexiorako gaiak lantzen ditugu, bereziki. Zinebin aurkeztu genuen beste dokumental batean adibidez, migrazio emozionalak landu genituen, aldaketen inguruan erreflexionatzeko.



## Uluka batuka: feminismoaren aldeko doinuak



Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da domekan, eta ia bezala, Uluka Batuka taldeak feminismoaren aldeko doinuak aterako ditu kalera. 14:00etan izango da ekitaldia, Kalegoen plazan. Aurtengorako, baina, berrikuntzekin datoz: Zuhaitz bat egin dute, eta zuhaitz horretako adarretan dagoeneko ahotsik ez duten emakumezkoen izenak jarriko dituzte; aurten indarkeria matxistak hil dituen emakumezkoen izenak, alegia. Segidan, elkarretaratze isila egingo dute.

Orain dela urtebete sortu zuten Uluka Batuka taldea. Ahalduntze ikastaro bat egin zuten zenbait emakumek eta konturatu ziren Elgoibarren ez zegoela berdintasuna aldarrikatzera kalera irteten zen emakumezkoen talderik. Aldarrikapenerako emakumezkoen talde bat sortu behar zutela pentsatu zuten, eta batukada taldea osatzea bururatu zitzaizkien. Iazko azaroaren 25ean irteten ziren estreinakoz kalera. Musikaz gehiegi jakin gabe, eta birziklatutako instrumentuekin irteten ziren orduan, babes gehiegirik gabe. Egoera horrek berak ahalduntzean lagundu zien; beraien kabuz eta inoren laguntzarik gabe horrelako saio bat egiteko gai zirela ikusteak aurrera jarraitzeko ilusio eta indarra eman zien. Hasieratik izan zuten argi ondo egitea baino garrantzitsuagoa zela egitea bera. Ez dute musikari edo perkusionista itxura eman nahi, baizik eta emakume ahaldunduena. Beharra dagoenean *Aski da!* esatera irteten diren emakumeak dira. Aitortzen dute, dena den, musikan adituak ez izateak badietela oztopo batzuk, eta ordu asko behar izan dituztela gutxieneko maila bat hartzeko, ordu "dibertigarri" asko.

Bi data dituzte gorrik markatuta egutegian: azaroaren 25a eta martxoaren 8a. Bi egun horietan ez dute hutsik egiten, baina horrez gain, berdintasuna aldarrikatzeko edo indarkeria matxista salatzeko beharra ikusten duten bakoitzean irteten dira kalera. Aurten, esaterako, San Bartolome jaietan ere irteten ziren, erasorik gabeko jaien alde.

Hasiera batean egun seinalatuetarako biltzea zen asmoa, baina azkenean urte osoan zehar egiten dituzte entseguak. Konturatu dira adin eta kultura desberdinetako emakumeak elkartzeko gune bat sortu dutela, beraien kezka eta ilusioak konpartitzen dituzte, eta batez ere, gozatu egiten dute. Emakumeon ahalduntzean laguntzeko gunea da, kezkatzen dizkieten gaiez hitz egiten dute, eta gune horretan garrantzitsuak sentitzen dira. Eta, batez ere, berdintasuna aldarrikatzen dute, sistema patriarkatuak sortzen dituen desberdintasunekin amaitzeko.

Adin desberdinetako 20 emakumek osatzen dute taldea. Asteheneretan egiten dituzte entseguak 20:15etik 22:00etara, Usetxeko eskoletan, eta hileko bi asteartetan batukada ikastaro batean hartzen dute parte. Era berean, Euskal Herriko Batukada Feminista sareko kideekin harremanetan dihardute, beste herri batzuetako taldeekin batera antolatu ahal izateko ekitaldiak. Sare horretako bi irakasle etortzen dira tarteka entseguetara, eta egun horiek egokiak izaten dira jende berria taldera animatzeko. Ateak zabalik dituzte, eta emakume guztiei egin diete taldean parte hartzeko gonbitea. Ez da musika jakintzarik behar, ilusioa eta gogoia edukitzea nahikoa da. Hori bai, Uluka Batuka taldeko kide izateko berdintasunaren alde borrokatzeko nahia ezinbestekoa da.





## *Lolita Argoitia Aranzamendi*

2018ko azaroaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Denborak samina arintzen omen du,  
baina zure oroitzapen goxoa  
ezerk ez du lausotuko.***

Sendia



III. URTEURRENA

## *Dolores Leyaristi San Martin*

2015eko azaroaren 23an hil zen, 92 urte zituela.  
Haren oroimenez III.urteurreneko meza izango da, zapatuan,  
azaroak 24, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Beti egongo zara gure artean.***



XV. URTEURRENA

## *Lorea Etxabe Azkue*

2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela.

***Edur zuritan hazittako  
lore gorrixa ziñan.  
Urtu eraitten zendun  
inguruko hotza,  
eta bedarra hazi erain.***

***Ez dogu gehixago  
zure berua igarriko,  
baiña hementxe gerauko da  
zure arnasia azarnia,  
botatako sustraixen gaiñian.***

Zure familia eta lagunak



## Bete-bete dator jubilatuen astea

Jubilatuen astea izango da datorrena, eta egitarau oparoa antolatu dute. Astelehenean hasiko dute ospakizun-astea, 18:00etan, jubilatuen egoitzan egingo duten txokolatadarekin. Astearterako, berriz, zine-foruma dute antolatuta. Bettina Oberlik zuzendutako *Las chicas de la lencería* filma ikusiko dute jubilatuen egoitzan eta Unai Arrietak gidatuko du film osteko solasaldia. Filma gaztelaniaz izango da, baina solasaldia bi hizkuntzatan egingo dute. Alargun geldituko den adineko emakume baten istorioa kontatzen du filmak. Gizona hil ostean, galduta ikusiko du bere burua Marthak. Alargundu aurretik horren gogoko zuen karta-jokoak ere ez du beteko jada, eta bizitzeko ilusioa ere galduko du. Kezkatuta, bere betiko ametsa izan duena betetzera animatuko dute hiru lagunek eta barruko arropa erotikoen denda zabalduko du Marthak, 80 urtekin.

Asteazkenerako, berriz, 80 urtez gorako bazkideentzako bazkaria iragarri dute. 14:00etan izango da bazkaria, eta bazkaritan aurrean urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omenduko dituzte (bazkaritara izena emanda daudenak joan ahal dira). Biharamunean, ostegunean, Eguberrietako 30 otar zozketatuko dituzte, 18:00etan, eta barixakurako, bisita gidatua antolatu dute Makina-Erremintaren Museora. 11:00etan hasiko dute bisita. Abenduaren 2an, azkenik, hildako jubilatuen aldeko meza izango dute parrokiari, 11:30ean, eta arratsaldean, 18:00etatik 21:30era, dantzaldia jubilatuen egoitzan, Eguren orkestrarekin.

## Talo tailerra, bihar, hileko azken zapatuko azokan

Hileko azken zapatua da bihar, eta ohi legez, nekazaritza eta abeltzaintza azoka egingo da Elgoibarren, Udalak eta Debemenek antolatuta. 9:00etan zabalduko dute azoka, eta baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da Kalebarren plazan. Aita Agirre plazan, berriz, ganadu erakusketa egingo da. 11:00etatik aurrera Sanlo EKT elkar-tekak prestatutako pintxoak dastatzeko aukera izango da txosnan. 12:00etan, berriz, kantura irtengo dira Kale Kantariak, eta 12:00etatik 14:00etara, talo tailerra egingo dute Kalebarren bertan. Debako Lastur auzoko Maitane Beristainek emango du tailerra.

## Ipuin lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak LH 5etik DBH 4ra arteko neska-mutilentzat

Ipuin lehiaketa antolatu dute Mendaron LH5etik DBH4ra arteko gazteentzat. Lehiakide bakoitzak ipuin bakarra aurkeztu ahal izango du, eta abenduaren 3a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Ipuinak Mendaroko udaletxera bidali behar dira ordenagailuz idatzita eta kartazal batean sartuta, gaitzizen bat eta zein mailatakoak idatzi duen zehaztuta. Hiru maila bereiziko dira. LH5 eta 6 mailakoek gutxienez orrialde bat eta gehienez bi orrialde-tako ipuinak idatzi beharko dituzte eta denen artean bi sari banatuko dira. Idazteko materiala jasoko dute saritzat bi onenek. DBH1 eta DBH2 mailako ikasleek aurkeztutako on artean ere bi onenak sarituko dituzte, idazteko materialarekin. C mailan, DBH3 eta 4 mailako ikaslen mailan, bi sari banatuko dituzte. Irabazleak 200 euro jasoko ditu dirutan, eta bigarren onenak, 100 euro. Informazio gehiagorako: [mendaro.eus](http://mendaro.eus)

## Euskarazko lelo lehiaketa antolatu du Mendaroko Gaztelekuak

Euskarazko lelo lehiaketa antolatu du Mendaroko Gaztelekuak. Azaroaren 25a arteko epea dago leloak aurkezteko, eta bi sari banatuko dituzte gero. Lelorik onenaren egileak 30 euro jasoko ditu, eta bigarren onenak, 20 euro. Diru hori herriko komertzioetan gastatzeko izango da. Azaroaren 25ean, berriz, ongi-etorri festa egingo dute Gaztelekuan LH 4, 5 eta 6. mai-lakoentzako, 16:00etatik 18:00etara.

## Jostailu erakusketa ikusteko azken eguna, bihar

Jostailu erakusketa antolatu dute Gaztelekuak eta Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Sailak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan, eta bihar izango da bisitatzeko azken eguna (Kultur Etxeko sotoan). Jolaserako ez ezik, jostailuak komunikazioa, lotura afektiboak eta balio hezitzaileak lantzeko oso baliagarriak direla gogoraziko dute bertan, eta haurrentzako jolas-txoko dinamizatua ere izango da, baita gida didaktiko bat ere gurasoen eskura. Gaur, 17:00etatik 18:30era egongo da zabalik, eta bihar, 11:30etik 14:00etara. Horrez gain, baina, afari-jolasa ere antolatu dute gaurko 18 urtez gorakoentzat, Gazte Asanbladarekin batera. 20:00etatik 00:00etara izango da, gartzetxean.

## Bigarren eskuko azoka bihar, Elgoibarren

Bigarren eskuko azoka antolatu dute biharko Elgoibarren, Udalak eta herriko ikastetxeek. Maalako parkean egingo dute, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

## Herria hobetzeko, adinekoen partaidetza sustatu nahi du Udalak, Elgoibar Lagunkoia ekimenaren bidez

Elusko Jaurlaritzak zahartze aktiboa sustatzeko bultzatzen duen Euskadi Lagunkoia sarera batu da Elgoibar, beste 54 herrirekin batera. Ekimen horren bidez, adineko pertsonak Elgoibarko ongizatea sortzeko duten ahalmenari probetxua atera nahi diote. Horretarako, parte-hartze prozesuak sortu eta ekimen lagunkoien sare bat sortu nahi du Udalak, beti ere Elgoibarko bizi-kalitatea hobetze aldera. Hasteko diagnosi bat egingo du Udalak, eta horretarako, inkesta bat sortu dute. Herria adinekoentzat egokitu a ote dagoen jakin nahi dute inkesta horren bidez, eta galdetegiak hainbat lekutan jarriko dituzte herritarren eskura: herriko kultur elkarteetan, ikastetxeetan (Ikastola eta Herri Eskola), Jubilatuen Biltokian, Liburutegian eta Kultur Etxean. Behin inkesta horiek betetakoan horretarako propio sortu dituzten buzoietan entregatu beharko dira erantzunak abenduaren 14rako (Herritarren Arreta Zerbitzuan eta galdetegiak jarriko dituzten lekuetan egongo dira buzoiak). Edonola ere, Internet bidez ere bete ahalko



da galdetegia, honako loturan sartuta: <https://labur.eus/elgoibarlagunkoia>. Inkestan, irisgarritasuna, komunikazioa, garraioa, partaidetza, gizarte integrazioa, etxebizitza eta aisialdia moduko gaiez galdetuko dute, eta inkesta betetzen duten guztien artean 300 euroko bonoa jasoko du Txankakua merkatarik elkarteko kide diren saltokietan gastatzeko. Zozketa abenduaren 19an egingo dute, eta Udalaren webgunean

eta prentsan jakinaraziko dute irabazlea. Saria jasotzeko, baina, beharrezkoa izango da inkestarekin batera doan zenbakidun orria gordetzea, zenbakia bertan agertzen delako.

Ondoren, emaitza guztiak jaso eta balorazioa egingo du Elgoibar Lagunkoia ekimeneko talde eragileak. Talde hori boluntarioek osatzen dute, eta hilean behin elkartzen dira. Taldea irekia da, eta edonork parte hartu dezake.

## Santa Zezilia eguna ospatu dute Elgoibarko eta Mendaroko musikazaleek



Santa Zezilia eguna ospatzeko hainbat ekintza egin dira egunotan Elgoibarren eta Mendaron, eta kalean egin diren bi ekintzaren argazkiak ekarri ditugu hona: Mendaroko Musika Eskolak asteartean egin zuen Musikalean jaialdiko eta Elgoibar Ikastolakoek atzo egindako kalejirakoa. Gaurko, bi kalejira antolatu ditu Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak eta igandean Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du Herriko Antzokian, 12:30ean. Aurrez, kalejiran irtengo dira, Kalegoen plazatik, 9:45ean.

## Iñigo Lariz eta Mayi Mujika gailendu dira Karakateko Igoeran



70 lagunek hartu zuten parte, zapatuan, Morkaikok antolatutako 25. Karakateko Igoeran, eta guztiek lortu zuten proba bukatzea. Iñigo Lariz eta Mayi Mujika izan ziren azkarrenak. Mujikak estreinakoz irabazi zuen proba eta seigarren garaipena lortu zuen Larizek. Hamar alditan hartu du parte eta sei irabazi ditu (2007koa, 2012tik 2015erakoak eta aurtengoa). Pozik zegoen amaieran. "Lasterkari batzuek falta ziren, Iban Murua eta beste batzuk, baina hala ere, maila handia egon da eta karrera polita izan da", azaldu zuen. Larizek 29 minutu eta bost segundoan osatu zuen igoera. Iban Muruak iaz ezarri zuen errekorretik (26:17) urrun dago, baina ibilbidean izan den aldaketa batek izan zuen eragina aurtengo denboretan. Izan ere, Karakol zubia pasa ostean ezin izan zuten Azkuerako bidea menditik egin, etxeak eraikitzeko egiten diharduten obregatik, eta Institutu paretik igota errepidetik egin zuten mendian sartu arteko bidea. Larizen atzetik, Gorka De La Horrak lortu zuen bigarren postua, irabazlearengandik minutu eta 25 segundora. Ioritz Condek egin zuen hirugarren (30:36). Emakumezkoetan Mayi Mujikak 35 minutu eta 48 segundoan egin zuen igoera, eta iazko irabazle Ainhoa Lendinez izan zen bigarrena (37:04). Naomi Revert sailkatu zen hirugarren postuan (41:47).

## Agur Alkortako Igoerari



Parte hartzeak urtetik urtera behera egin duela-eta, Alkortako Igoera antolatzeari lagatzea erabaki du Mendaroko ezker abertzaleak. Kirola eginez euskaltzaren eskubideen aldeko aldarikapena lau haizetara zabaltzeko helburuarekin hasi ziren proba antolatzen. Guztira hamahiru lasterketa jokatu dituzte urteotan, 2006tik 2017ra bitartean. Hamalagarrena bihar, azaroaren 24an, jokatzeokoak ziren. Antolatzaileek Alkorta familiari eskerrak eman dizkiote urteotan egindako lanagatik. "Eurengatik izan ez balitz, ezin izango genituen Alkortako Igoera hauek antolatu. Urteotan parte hartu duten korrikalariak eta bide bazterretan animoak ematen egon diren zaleei ere eskerrik asko. Plazer bat izan da", adierazi dute.

## Igerilari elgoibartarrak hasi dira lehiari

Elgoibarko igerilariak bi lehiaketatan hartu zuten parte asteburuan. Batetik, benjaminen Kirol Zehaztasun Ligako lehen jardunaldian hartu zuten parte, Azpeitian. Bestalde, eta zapatuan baita ere, Legazpiko Bikuña igerilekuan ligako bigarren jardunaldian lehiatu ziren alebinak. Igerilari elgoibartarrek denbora oso onak egin zituztela jakinarazi dute Elgoibarko Igeriketa Taldekoek.



## Angel Ibarluzea bolaria, Euskal Herriko txapelkun

**A**ngel Ibarluzeak irabazi du Euskal Herriko 29. Hiru Txirlo Txapelketa. San Migel taldeko bolaria sailkapen nagusiko lehen postuan ailegatu zen Aiasiako bolatokian jokatu zuten azken jardunaldira, eta ez zuen hutsik egin. 55 bolarik hartu zuten parte eta azoko lau bolari sailkatu



ziren aurreneko lau postuetan. Xabier Loiola gailendu zen, 7 txirlo botata, Unai Loiolak egin zuen bigarren 5 txirlo jota eta Angel Ibarluzea sailkatu zen hirugarren postuan, 4 txirlo botata. Javier Osorok ere lau bota zituen eta laugarren postuan sailkatu zen. Sailkapen orokorrari dagokionez, Ibarluzeak 23 txirlo bota ditu lau jardunalditan. Sebastian Aranzabal elgetarra sailkatu da bigarren postuan (19 txirlo), eta Unai Loiola sailkatu zen hirugarren postuan (19 txirlo). Bikotekako sailkapenean ere San Migel taldeko Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea gailendu dira, nagusitasunez. 41 txirlo bota ditu bikote elgoibartarrak, bigarren sailkatu diren Felix Gomez eta Beñat Gomezek (Asola Berri) baino 9 txirlo gehiago. Taldekako sailkapena ere alde handiarekin irabazi du San Migel A taldeak. Guztira 89 txirlo bota dituzte. Markina Xemeingo Hiru Txirlo Taldea sailkatu da bigarren postuan 59 txirlorekin.

## Jendetza batu zen skatepark berriaren inaugurazio jaira

Basarten eraiki duten Skatepark berria inauguratu zuten azaroaren 17an. Patinete zale asko hurbildu zen, parke berria probatzera asko eta Danny Leon madrildarra edo Ian Campbell donostiarra moduko goi mailako patinatzaileen



jauzi eta trikimailuak gertutik ikustera beste zenbait. Skater profesionalak eta afizionatuak elkarrekin ibili ziren inaugurazio jaian. Gaztetzoen artean arrakasta duen kirola dela agerian gelditu zen, ume eta gaztetzok asko azaldu baitziren inaugurazio jaira euren skate board patineteekin edo scooter patineteekin.



## Arrizabalaga eta Lizarraldek jokatuko dute Gipuzkoako Txapelketako finala

Gomazko paletako Gipuzkoako Txapelketako 2. mailako finala jokatuko du Lagunak taldeko Kepa Arrizabalagak eta Gorka Lizarraldek osatutako bikoteak. Donostiako Loiolatarrak taldeko bikotea kanporatu zuten finalaurrekoetan, bi partidak irabazita. Finalean Zarautz taldeko Zabala eta Azpeitia izango dituzte aurkari. Zarautzko Aritzbatalde pilotalekuan izango da finala, zapatuan (azaroak 24), 17:00etan. Finala galdu edo irabazi, hurrengo denboraldian mailarik gorenean, Lehen Mailan, lehiatuko dira Arrizabalaga eta Lizarralde. Era berean, 22 urtez azpikoen Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen diharduen Lagunak taldeko bikoteak finalaurrekoetarako sailkatzea lortu du. Aranberrik eta Iker Odiak zaleen aurrean jokatuko dute finalerdia (partida bakarrera), gaur, Ikastolan (20:00).

## Alberto Iñurrategiren 'Porrotaren alde' diaporama, azaroaren 28an

Alberto Iñurrategik eskainiko duen saioarekin amaituko da 2018ko Morkaikoren Udazkeneko Mendi Emanaldien Zikloa. *Porrotaren alde* izeneko diaporama eskainiko du aretxabaldarrak datorren eguaztenean, azaroaren 28an, musika eskolako auditoriumean (21:00). Era berean, Morkaikok 75. urteurrenaren harira antolatu duen erakusketa domekara bitartean egongo da ikusgai Kultur Etxean.



**LANA.....**  
**Eskaerak**  
 Adinekoak zainduko nituzke, asteburuetan. ☎ 648 039 187

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 612 232 312

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasi naitenke. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 631 783 541

Umeak zein adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 681 310 989

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 626 407 923

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan ere bai. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 733 573

Pertsona arduratsua eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Etxeko langile ere bai. ☎ 679 048 129

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai. ☎ 631 987 624

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Ospitalean ere bai. ☎ 632 013 896

Adinekoak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. Esperientzia handia. ☎ 642 636 525

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia. ☎ 612 289 330

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 612 222 362

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna. ☎ 648 063 061

Edozein lan egiteko prest nago. ☎ 643 464 072

Lan bila nabil. Geriatriako titulua eta tailer laguntzailearena ditut. Garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzia handia. ☎ 616 441 825

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Interna edo orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest. ☎ 631 891 709

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 653 667 975

Baso garbitzen edo lorategiak zaintzen egingo nuke lan.

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Ospitalean ere bai. ☎ 632 796 081

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. ☎ 631 822 545

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 981 624

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 632 013 896

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Interna edo orduka. ☎ 680 103 356

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 631 145 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 269 991

Garbiketa lanak egiteko edo umeak zein adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka. ☎ 632 642 350

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 295 212

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. ☎ 631 115 608

Lanerako prest. Pertsona nagusia eta umeak zainduko nituzke, eta, garbiketa lanak egin ere bai. ☎ 602 152 685

Esperientzia daukat garbiketa lanetan eta adinekoak zein umeak zaintzen. ☎ 631 063 561

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Geriatria eta erreabilitazioko tituluak ditut. ☎ 632 737 903

Lanerako prest nago. ☎ 632 729 663

Lanerako prest nago. ☎ 642 433 893

Asteburuetan lan egiteko prest nago. ☎ 617 914 989

**Eskaintzak**

Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ 605 775 336

**ETXE BIZITZAK.....**  
 Bi edo hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 677 259 560

Etxea hartuko nuke alokairuan, ahal dela, hiru logelatakoa. ☎ 630 410 294

Pisu bila nabil. Nomina eta kontratua ditut. ☎ 632 839 617

Estudioa alokatzen dut, behar den gutxiarekin. ☎ 669 665 252

Etxea merkea erosiko nuke Elgoibarko erdigunean. ☎ 646 390 826

**ESKOLA PARTIKULARRAK.....**  
 Klase partikularrak ematen dira. LH eta DBH. *biribiltxoko@gmail.com*  
 ☎ 630 055 077

**BESTELAKOAK.....**  
 Giltz batzuk aurkitu nituen azaroaren 4an Uparitzaga kalean. DIA supermerkatuko txartel txikia dauka. Udaltzaingoan utzi ditut.

**administradores** Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
 Entidad Pública Administradora para el Empleo



**ROSA Mª PINTADO**

*Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Udako oporretan gure etxepeko sotoa urak hartu zuen. Nire bizilaguna eta ni neu izan ezik, etxepeko guztiak kanpoan ziren. Egoera horretan, nire bizilagunak eta biok normalean gure komunitateko lanak egiten dituzten iturginei deitzea erabaki genuen. Aldi berean, gainerako bizilagunei deika aritu ginen, baina inork ez zigun telefonoa erantzun.**

**Konponketa uste baino zailagoa izan zen. Bi iturgin aritu ziren lau egunez hainbat lan eta konponketa egiten, eta hasieran zirudiena baino gehiago kostatu zitzaizkien arazoak konpontzea. Lanak bukatu zituztenean nik sinatu nuen jasotako zerbitzuari zegokion nota, eta iturginek esan zuten bidaliko zutela faktura. Oporraldia amaitu zenean komunitateko presidenteari kontatu nion guztia eta gertatutakoaren berri eman nion. Faktura iritsi da orain, eta presidenteak berak eta etxepeko beste bizilagun batzuek esan dute ez dutela faktura hori ordainduko, garestiegia iruditzen zaielako, eta uste dutelako beste modu batean konpondu zitekeela arazoa. Nire bizilaguna eta ni arduratuta gaude, batek baino gehiagok esan digulako guk ordaindu beharko dugula faktura hori. Egoera honi buruzko informazioa eskuratu nahi nuke:**


Nire ustez, lasai egon zaitezke, ez zenuelako modu arduragabeen jokatu. Komunitateko bilera egiteko aukerarik ematen ez zuen presazko egoera baten aurrean, arduraz jokatu zenuen, arazoa ahalik eta azkarren konpondu eta kalteak ahalik eta txikiak izan zitezkeen. Gainera, komunitateko ohiko iturginei deitu zenien, ez zenuen jo komunitatearen oniritzia ez duten beste profesional batzuegana.

**Ondorioa: Lanak zuzenak izan baziren eta modu egokian fakturatu badira, komunitateak ez dauka ordainketa ez egiteko aitzakiarik. Kontuan hartu behar da zuk komunitatearen ordezkari bezala kontratatatu zenuela enpresa hori, eta ez modu partikularrean.**


**NORFO**



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira  
BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Danel!**  
8 urte azaroaren  
21ean! Segi orain  
arte bezain alai  
eta ona izaten.  
Muxu handi bat  
etxekoan partez.



Zorionak, **Danel,**  
lehengusu Irati,  
Uxue, June eta  
arriba Aneren  
partez.



Zorionak, **Unax,**  
atzo 6 urte bete  
zenituelako. Muxu  
handi bat familia-  
koen, eta bereziki,  
Malenen partez.



Zorionak, **Jare,**  
astelenean 7  
urte beteko dituz-  
lako. Muxuak fa-  
miliakoen eta  
bereziki, Lierren  
partez.



Zorionak, **pototi,**  
bihar 7 urte  
egingo dituzulako.  
Muxu bat aitiitta  
eta amamaren  
partez.



Zorionak, **prin-  
tzesa!** 7 urte!  
Uff! Patxo handi  
bat ama, Iñaki eta  
bereziki, Nuriaren  
partez.




Zorionak, **Enai!**  
Ilgandean 3 urte!  
Denok prest  
gaude merendola-  
rako! Muxu potolo  
pila bat etxeko  
guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€





**SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR**  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)  
**943 744 457**

## QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez  
sortutako lastaira, guztiz ekologikoa,  
atseden betea hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko  
kotoizko edredoi nordikoak,  
guztiz material naturalekin egina

## IkasGO akademia



- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

667 261 248

(Leire) Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademiaelgoibar@gmail.com](mailto:akademiaelgoibar@gmail.com)

## Uzuri

ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)



## PINTURA ETA DEKORAZIOA

# CORDON VILARCHAO

[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 98 61 62



AZAROAK 23

# BLACK FRIDAY

%30 EKO DESKONTUA

EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

## 23 BARIXAKUA

**18:30** Euskaraldiaren hasiera. Maalako parkean.

**19:45** Trititixa, akordeoi eta pandero kalejira, herriko kaleetan zehar.

## 24 ZAPATUA

**Azken zapatuko feria**

**9:00** Baserrietako produktuen saltokiak, Kalebarren plazan.

**12:00** Talo tailerra, haur eta gazteentzat.

**Egurdian**, Kale Kantariak.

**Egurditik aurrera**, ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

**9:00** Emakumeentzako autodefentsa tailerra, kiroldegian. 14 urtetik gorakoentzako.

**10:00** Bigarren eskuko merkatua. Maalakan. Udalak eta ikastetxeek antolatuta.

**11:30** Jostailu erakusketa. Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan.

**19:00** Udal Musika Bandako hildakoen omenezko meza berezia. San Bartolome parrokian.

## 25 DOMEKA

**9:45** Udal Musika Bandaren Santa Zuziliako kalejira.

**10:00** Emakumeei zuzendutako antisorgailuei buruzko tailerra eta sexu praktiken inguruko eztabaida. Narrutsik taldeak antolatuta, Kultur Etxean.

**12:30** Udal Musika Bandaren Santa Zuziliako kontzertua. Herriko Antzokian. Zuzendaria: Gorka Mujika Urain.

Egitaraua:

1. *Continental overture* (Johan de Meiji)  
2. *Andres Contrabandista* (O. Navarro)  
3. *Concierto de Aranjuez* (Joaquin Rodrigo). Kitarra bakarlarria, Juan Carlos Martin).

4. *Bonaparte* (Otto M. Schwartz)

**14:00** Indarkeria matxista salatzeneko elkarretaratzea.

**19:00** *Women in black* ekimena, hildako emakume guztiak oroitzeko. Mendaroko frontoia hilerri bihurtuko dute, dolua agertzeko.

## 26 ASTELEHENA

**17:00** Ipuin kontalaria: Anduriña Zuru-tuza. Udal Liburutegian, HH5eko umeentzako.

**19:00** Epeletan literatur solasaldia: Danelle Sarrigarteren *Azala erre* liburua aztertuko dute. Udal Liburutegian.

## 27 MARTITZENA

**19:00** Hitzaldia: Onintza Ostolaza, Sebas Etxanizen abokatuak eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** *Fabricando mujeres* filmaren aurkezpena. Herriko Antzokian, doan.

## 30 BARIXAKUA

**17:30** Presoen aldeko Olentzero antolatzeneko bilera irekia. Kimetz elkartean.

**19:30** Sebas Etxanizen aldeko elkarretaratzea. Kalegoen plazan.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'Carmen y Lola'

23 barixakua, 21:30

24 zapatua, 19:00 / 22:15

25 domeka, 19:00

26 astelehena, 21:30



### 'Christopher Robin'

25 domeka, 16:30



### 'Girl'

29 eguena, 21:30

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**aldaz**  
hortz klinikak  
RPS233/13  
Tel.: 943 366 377  
San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

RPS 271/12  
**ainhoa**  
fizioterapia  
Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

federópticos  
**ikus**  
RPS 65/07  
San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

**NATUR HOUSE**  
Ainara Iriondo Ansola  
GIZA EIKA DURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA  
Terrible Etebarria, 22  
Eibar  
Tel. 943 106 020  
Mug. 677 551 850



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
23 BARIKAKUA	24 ZAPATUA	25 DOMEKA	26 ASTELEHENA	27 MARTITZENA	28 EGUAZTENA	29 EGUENA	30 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Garitaonandia	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria

\* Fernandez:  
Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**  
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)  
943 254 410

JUBILATUEN ASTEA

Azaroak 26, 27, 28, 29 eta 30

<p><b>26 ASTELEHENA</b> 18:00 Txokolate jatea.</p>	<p><b>27 MARTITZENA</b> 17:30 Zine foruma: <i>Las chicas de la lencería</i>. Unai Arrietak gidatuko du saioa.</p>	<p><b>28 EGUAZTENA</b> 14:00 80 urtetik gorakoentzako bazkaria. Aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteei omenaldia egingo diete.</p>	<p><b>29 EGUENA</b> 18:00 Gabonetako 30 otarren zozketa.</p>	<p><b>30 BARIKAKUA</b> 11:00 Erreminta makinaren museora bisita gidatua.</p>
--	---	---	--	--



**OLAIA MARTINEZ**  
ESTETIKA ZENTROA

**Irekiera GAUR**  
18:00etan, zatoz!

943 242 805

Txartel hau ekariz gero,  
**%10eko** deskontua tratamendu guztietan.  
Urte bukaerara arte.

Trenbide kalea 21, behe, ezk.




gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**leku edero**  
hortz klinika  
RPS 171/12  
Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea  
Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
www.fisio-mas.com  
RPS 112/18

RPS 183/12  
**Uzuri**  
optika audio  
Elgoibar  
Tel.: 943 740 359  
Deba  
Tel.: 943 192 192

**FUB** Fernando Urizar Barandiaran  
R.P.S.: 32/17  
Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika  
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)  
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
furizar1@yahoo.com  
615 715 404

# DANOBATGROUPek

## euskararekiko duen konpromisoari erantzunez

### herritar guztiei zuzendutako lehiaketa antolatu du

Azken urteetako ekimenari jarraituz aurten ere DANOBATGROUPEk Euskararen Nazioarteko Egunaren harira kooperatibak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa bat jarri du martxan **Euskara aldean, erabili lanean** lemapean.

*Gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere*

tzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda.

Lehiaketa modu digitalean antolatu da, eta parte hartzeko <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html> helbidean sartu behar da.

Galderei erantzuteko [www.danobatgroup.com/eu](http://www.danobatgroup.com/eu) webgunean klikatu eta kooperatibari buruzko galdera orokor batzuei erantzun ondoren DANOBATGROUPEko hiztegi teknikoan sartu, <http://hiztegia.danobatgroup.eus/eu> eta hainbat hitzen ordainak aukeratu beharko dira, besteak beste.

Abenduaren 3ra arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta parte hartzaile guztien artean bi bono zozketatuko dira asteburu bat pasatzeko bi lagunek Euskal Herriko landetxe batean.

DANOBATGROUPEk konpromiso sendoa du gizartearekin, eta hainbat ekimenekin elkarlanean ari da enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asisten-

Gizartearekiko konpromiso sendo horretan kokatzen da euskararekiko konpromisoa ere.

DANOBATGROUPEk harreman sare zabala du eta bezeroekin sarri ingelesez baliatu behar izaten bada ere bertako langile, hornitzaile, bezero, ikastetxe, administrazio eta abarrek euskara erabiltzeko konpromiso sendoa du eta horren adierazgarri kooperatiba guztietan euskararen erabilera bultzatzeko dituen planak, lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak...

Aurten, aurreko urteetako bideari jarraipena emanez esan bezala DANOBATGROUPEk lantegiak dituen herrietako herritar guztiengana iritsi nahiko luke web gunea bisitatzeraz gonbidatuz eta euskararekiko konpromisoa ezagutzera emanez lehiaketa baten bidez.

Sartu ariketan, kontsultatu web gunea, sartu hiztegi teknikoan, klikatu Tailerreko Eskuliburu Teknikoan... osatu ariketa eta hartu parte bi lagunentzako asteburuko zozketan. Euskara aldean, erabili lanean, etxean, kalean...



**DANOBATGROUP**

**HARTU PARTE DANOBATGROUPEn EUSKARAREN EGUNeko LEHIAKETAN!**

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi bi gureko egonakdia bi lagunentzat

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html>

\*Parte hartzeko adin eguna: 2018ko abenduak 3

**euskara aldean, erabili lanean**

DANOBATGROUP KOOP. E. | DANOBAT KOOP. E. | GOIMEK KOOP. E. | GOITI KOOP. E. | IDEKO KOOP. E. | LATZ KOOP. E. | SORALUCE KOOP. E.

# ATXUTXIAMAIKAREN ETA LUDOTEKAREN NEGUKO OPORRALDIA 2018

## TXOKOAK

**HH3-LH3**

1. txanda: abenduak 26-28
  2. txanda: urtarrilak 2-4  
09:00-13:00 Maalako parkean
1. txanda: 39€ (bazkideek, 35€)  
2. txandak: 70€ euro (bazkideek, 63€)

## SOTO-TXOKOAK

**HH2**

BERRIA

1. txanda: abenduak 26-28
  2. txanda: urtarrilak 2-4
- Sarrera eta irteera malgua:  
09:00/10:00-12:00/13:00  
Kultur Etxeko Sotoan
1. txanda: 39€ (bazkideek, 35€)  
2. txandak: 70€ euro (bazkideek, 63€)

## ABIXADAN

**LH2-3**

**Abenduak 27:** Irrisarriland-era egun-pasa,  
20€ (bazkideek, 17€)

**Urtarrilak 3:** arratsalde-pasa Elgoibarren  
6€ (bazkideek, 5€)

Ekintzak edota hauen nondik norakoak haurrekin batera erabakiko dira berbaldian. **Abenduaren 14an**, 17:00etan, merkatu plazako 2. solairuan

## SOTOTK

16:30-20:00

Kultur Etxeko Sotoan / DOAN

**0-3 urtekoak: abenduak 26 eta urtarrilak 4**  
(Heldu batek lagunduta: Espazio arazoak ekiditeko, ume bakoitzeko heldu bat etortzea eskertuko dugu)

**4-6 urtekoak: abenduak 27 eta urtarrilak 3**  
(Ahal dela, heldurik gabe)

## ALDENIK ALDEN

**LH4-6**

**Abenduak 26:** sukaldaritza+izotz pista DOAN

**Abenduak 26:** Kotiloiko prestaketa-lanak, 17:00etan, ludotekan

**Abenduak 29:** Kotiloia Gaztetxean 6€ (bazkideek, 5€)

**Urtarrilak 3:** egun-pasa 20€ (bazkideek, 17€)

Ekintzak edota hauen nondik norakoak haurrekin batera erabakiko dira berbaldian. **Abenduaren 2an**, 17:00etan, ludotekan

*Izen ematea: azaroaren 26tik abenduaren 5era arte [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) web-orrian, Elgoibarko Izarraren bulegoan nahiz Ludotekan. Udalaren diru-laguntzak: Familia ugariak, guraso bakarreko familiek eta 2. seme-alabak parte hartzeagatik, %30eko deskontua eta DSBL, DBE, GLL laguntzen onuradunek, %70ekoa.*

PLAZA  
MUGATUAK



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURA ETA IKERKETA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# etxegain

BIZIGUNEA



## Gorenean

WWW.ETXEGAIN.COM

3 LOGELAKO  
AZKEN  
ETXEBIZITZAK, 2  
BAINUGELAK ETA  
TERRAZA  
**175.000€-tik  
aurrera**

AZKEN DUPLEX-A  
BEHEKO SOLAIRUAN,  
BI PLAZAKO GARAJE  
ITXITAREKIN,  
TRASTELEKU ETA  
TERRAZA  
**270.000€-tik  
aurrera**



## elgoibar

2, 3 ETA 4  
LOGELAKO  
ETXEBIZITZAK

TERRAZA ZABALAK ETA  
PERTSONALIZATZEKO MODUKO  
TXOKOAK DITUZTEN BEHEKO SOLAIRUAK

LOGELAK  
10 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

EGONGELA  
GUZTIAK 20 M<sup>2</sup>-TIK  
GORAKOAK

IKUSPEGI ZABALAK  
DITUZTEN TERRAZA  
HANDIAK GARAIERAN

**etxegain** goi-mailako sustapena duzu. Ikuspegi inbidiagarritz gozatzeko aukera ematen duen goragune batean, goi-mailako eraikin bati dagozkion materialez egina, eta betiere GRUPO EIBAREk eskaintzen duen zerbitzu-maila gorenarekin, zure etxebizitza pertsonalizatzeko aukera zabalekin.

**etxegain** en prezioak soilik dira baxuak, eta horregatik da goi-mailako higiezin-inbertsioa.



**GE** grupo eibar  
inmobiliario

943 31 66 11

E.: comercial@grupoelbar.com  
San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OPERA FINANCIADA POR:

**bankoa** | Group  
Credit Agricole